5562

EBAZPENA, 2008ko irailaren 3koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza zuzendariarena, honen bidez ebazten da Editorial del Pueblo Vasco SAri buruzko hitzarmen kolektiboa (2008-2011 urteetarako) erregistratu, gordailatu eta argitaratzea (8601402 hitzarmen-kodea).

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Enpresaren zuzendaritzak eta bere enpresa-batzordek, langileen ordezkapenean, 2008ko uztailaren 23an aurkeztu zuten ordezkaritza honetan aipatutako hitzarmen kolektiboari buruzko derrigorrezko dokumentazioa.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Langileen Estatutuari buruzko Legeko 90.2 artikuluak (martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 19ko BOEn argitaratua) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren egitekoen eta organoen egitura ezartzen duen urriaren 18ko 315/2005 Dekretuko (2005-10-27ko EHAA) 17.f) artikuluak xedatutakoaren arabera, eta martxoaren 2ko 39/1981 Dekretuak (1981-04-02ko EHAA) eta maiatzaren 22ko 1040/1981 Errege Dekretuak (1981-06-06ko BOE) -hitzarmen kolektiboen erregistroari buruzkoak- xedatutakoaren ildotik.

Bigarrena.– Sinatutako hitzarmen kolektiboak Langileen Estatutuari buruzko Legearen 85., 88., 89. eta 90. artikuluek xedatutako eskakizunak betetzen ditu.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Hitzarmen hau Euskadiko Hitzarmen Kolektiboen Erregistroan inskribatu eta gordailatzeko agintzea, eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko irailaren 3a.

Lan eta Gizarte Segurantza zuzendaria,
ADOLFO GONZÁLEZ BERRUETE.

5562

RESOLUCIÓN de 3 de septiembre de 2008, del Director de Trabajo y Seguridad Social, por la que se dispone el registro, publicación y depósito del Convenio Colectivo de Editorial del Pueblo Vasco, S.A. para 2008-2011 (código de convenio n.º 8601402).

ANTECEDENTES

Primero.– El día 23 de julio de 2008 se ha presentado en esta Dirección, la documentación preceptiva referida al convenio antes citado, por la Dirección de la Empresa y el Comité de Empresa, en representación de las y los trabajadores.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– La competencia prevista en el art. 90.2 de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo (BOE de 29-03-1995) corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el art. 17.f) del Decreto 315/2005, de 18 de octubre (BOPV de 27-10-2005) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, en relación con el Decreto 39/1981, de 2 de marzo (BOPV de 02-04-1981) y con el Real Decreto 1040/1981, de 22 de mayo (BOE de 06-06-1981) sobre registro de convenios colectivos.

Segundo.– El convenio ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

RESUELVO:

Primero.– Ordenar su inscripción y depósito en el Registro de Convenios Colectivos de Euskadi, con notificación a las partes.

Segundo.– Disponer su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de septiembre de 2008.

El Director de Trabajo y Seguridad Social,
ADOLFO GONZÁLEZ BERRUETE.

EDITORIAL DEL PUEBLO VASCO, SA (EDIVASA) ENPRESAKO V. HITZARMEN KOLEKTIBOA

I. KAPITULUA
APLIKAZIO EREMUA

1. artikulua.– Lurralde-eremua eta eremu funtzionala.

Hitzarmen kolektibo honetan jasotako arauek Editorial del Pueblo Vasco SAk dituen eta hitzarmenaren indarraldian era daitezkeen lantoki guztietako lan-harremanak arautuko dituzte.

Hitzarmen honen lurralde-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa da.

2. artikulua.– Langileak.

Hitzarmen kolektibo hau Editorial del Pueblo Vasco SAn ohiko lan-harremanean lan egiten duten langile guztiei aplikatuko zaie, kontratazio mota edozein izanik ere. Ondorioz, kanpoan geratuko dira lan-harreman berezia dutenak eta zerbitzuetako harreman zibila dutenak, eta, bereziki, ondoko hauek:

a) Erredakzio-zuzendariak.

b) Abuztuaren 1eko 1382/1985 Errege Dekretuan xedatutako goi-zuzendaritzako egitekoak dituztenak.

c) Profesional liberalak, zerbitzuak alokatzeagatiko kontratu zibilen bidez atxikita daudenak.

c) Piezako kolaboratzaileak, Enpresarekin harreman iraunkorra badute ere.

d) Editorial del Pueblo Vasco SArentzat lan egin arren, jarduera berbera edo bestelakoa duten beste enpresa batzuk ere ordezka ditzaketen merkataritzako edo publizitateko agenteak.

3. artikulua.– Iraupena eta indarraldia.

Hitzarmen kolektibo hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean, soldata-kontzeptuengatik salbu, 2008ko urtarrilaren 1etik atzeraeraginezko eraginak dituena, eta indarraldia 2011ko abenduaren 31 arte luzatuko da.

4. artikulua.– Salatzea.

Hitzarmen kolektiboa idatziz salatuko da, mugaeguna baino hiru hilabete lehenago, gutxienez. Epe horretan alderdi batek ere ez badu salatzen, hitzarmena urterik urte luzatuko da, besterik egin gabe.

5. artikulua.– Bermeak.

Hitzarmen kolektibo honetan ezarritako baldintzak gutxienekotzat eta derrigorrez bete beharrekotzat jotzen dira, baldintza indibidual onuragarriagoak egon daitez-

V CONVENIO COLECTIVO DE EDITORIAL DEL PUEBLO VASCO, S.A. (EDIVASA)

CAPÍTULO I
ÁMBITO DE APLICACIÓN

Artículo 1.– Ámbito territorial y funcional.

Las normas contenidas en el presente Convenio Colectivo regularán las relaciones laborales en todos los centros de trabajo que tiene «Editorial del Pueblo Vasco, S. A.», así como los que puedan constituirse durante su vigencia.

El ámbito territorial de este convenio se circunscribe al País Vasco.

Artículo 2.– Ámbito personal.

El presente Convenio Colectivo afecta a todo el personal que preste sus servicios en «Editorial del Pueblo Vasco, S.A.», en virtud de relación laboral ordinaria, cualquiera que sea su modalidad de contratación. Quedan por tanto excluidos todos aquellos que son titulares de una relación laboral especial o de una relación civil de servicios, y específicamente:

a) Los directores de redacción.

b) El personal que realice funciones de alta dirección en los términos previstos en el Real Decreto 1382/1985, de 1 de agosto.

c) Profesionales liberales vinculados por contratos civiles de arrendamiento de servicios.

c) Los colaboradores a la pieza, independientemente de que mantengan una relación continuada con la Empresa.

d) Los agentes comerciales o publicitarios que presten servicios para «Editorial del Pueblo Vasco, S.A.» con libertad de representar a otras Empresas dedicadas a igual o diferente actividad.

Artículo 3.– Ámbito temporal y vigencia.

El presente Convenio Colectivo entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, salvo por los conceptos salariales cuya efectos son retroactivos a 1 de enero de 2008 y su vigencia se extenderá hasta el 31 de diciembre de 2011.

Artículo 4.– Denuncia.

La denuncia del Convenio Colectivo se realizará por escrito, con una antelación mínima de tres meses a su vencimiento. En caso de no mediar dicha denuncia por cualquiera de las partes con la antelación mínima reseñada, el Convenio se considerará prorrogado tácitamente de año en año.

Artículo 5.– Garantías.

Las condiciones que se establecen en este Convenio Colectivo tienen la consideración de mínimas y obligatorias, sin perjuicio de las condiciones individuales más

keen arren. Horretarako, eskuratutako eskubide diren baldintza onuragarriagotzat hartuko dira langile bati edo gehiagori pertsonalki eta eskubide gisa esleitu zaizkionak, ez akatsaren edo Enpresaren aldetiko kontrol faltaren ondorio direnak.

II. KAPITULUA
ARAU-SISTEMA

6. artikulua.– Klausula indargabetzailea.

Hitzarmen kolektibo hau indarrean sartzen denean, aurrekoak indarra galduko du erabat, eta bertan aitortzen ziren eskubideak ere galdu egingo dira, hitzarmen honetan ere aitortzen direnak izan ezik, baina orain ezartzen den araubidea edukiko dute.

Hitzarmen kolektibo honetan aurreikusi gabe dagoen guztirako egokien jotzen diren Enpresaren ohiko erabilpenetara, sektoreko arauetara eta arau profesionaletara joko da, eta lehentasuna izango dute prentsaren sektorekoek eta, hauen barnean, denboran hurbilen daudenek.

7. artikulua.– Ordezkapena eta irenspena.

Zuzenean nahiz zeharka legez ezartzen diren soldata igoerek, duten izaera dutela, hitzarmen honetako ekonomia-hobekuntzak ordezkatu edo irentsiko dituzte, orokorrean eta urteko zenbaketan kontsideratutako ekonomia-aldaketak langileentzat hitzarmen honetakoak baino egokiagoak badira soilik.

8. artikulua.– Osotasunarekiko lotura.

Hitzarmen kolektibo honetan xedaturikoa osotasun zatiezina da printzipioz, eta ondorioz, edozein erabaki administratibo edo judizialek bere funtsezko eduki diren edo alderdi negoziatzaile biek jasotako prestazio-orekari eragiten dioten xedapen hauetakoren bat ondoriorik gabe uzten badu, hitzarmena bere osotasunean ondoriorik gabe geratuko da, eta langileriaren lan-kontratuetarako xedapen orokorretara joko da beste hitzarmen kolektibo bat burutu bitartean.

9. artikulua.– Bitariko Batzordea.

Bitariko Batzordeak eskumena edukiko du hitzarmen kolektibo honetan ezarritakoa interpretatu eta aplikatzerakoan sor daitezkeen arazoak eta bere iritzipean jartzen zaizkionak ebazteko.

Gehienez ere hirurogeita hamabi orduko epean bildu beharko da, alderdiren batek idatziz hala eskatuz gero.

Bitariko Batzordea sei pertsonek osatuko dute: Enpresako langileek hiru ordezkari edukiko dituzte eta Enpresaren Zuzendaritzak beste hiru, Enpresak libreki izendatuak.

beneficiosas. A estos efectos, se considerarán condiciones más beneficiosas constitutivas de derechos adquiridos las que se hayan atribuido a uno o varios empleados a título personal y como tal derecho, no las que sean fruto del error, o de la falta de control por parte de la Empresa.

CAPÍTULO II
SISTEMA NORMATIVO

Artículo 6.– Cláusula derogatoria.

A la entrada en vigor del presente Convenio Colectivo queda derogado íntegramente el anterior y decaídos cuantos derechos se reconocían en aquél, salvo los que también se reconocen en el presente, si bien con el régimen jurídico que ahora se establece.

En todo lo no previsto en el presente Convenio Colectivo se estará a los usos habituales de la Empresa, a las normas sectoriales y profesionales que resulten más adecuadas, siendo prioritarias las del sector de prensa y, dentro de ellas, las más cercanas en el tiempo.

Artículo 7.– Compensación y absorción.

Las mejoras económicas de toda índole que figuran en el presente Convenio Colectivo serán compensadas o absorbidas con los aumentos retributivos que, directa o indirectamente y cualquiera que sea su carácter, se establezcan por disposición legal, sólo en el caso de que las variaciones económicas consideradas globalmente y en cómputo anual resulten más favorables para los trabajadores que las contenidas en este Convenio.

Artículo 8.– Vinculación a la totalidad.

Lo dispuesto en el presente Convenio Colectivo constituye en principio un todo indivisible por lo que, en caso de que cualquier decisión administrativa o judicial dejase sin efecto cualquiera de sus disposiciones que constituyan contenido esencial del mismo o que afecten al equilibrio prestacional de lo recibido por ambas partes negociadoras, el Convenio quedará en su totalidad sin efecto, pasando a regirse los contratos de trabajo de la plantilla por las disposiciones generales hasta que, en su caso se concluyese un nuevo acuerdo Colectivo.

Artículo 9.– Comisión Paritaria.

La Comisión Paritaria tendrá competencia para resolver todas las cuestiones que se puedan suscitar sobre la interpretación y aplicación de lo establecido en el presente Convenio Colectivo y que se sometan a su consideración.

Se reunirá en un plazo no superior a setenta y dos horas, siempre que lo solicite alguna de las partes, previa comunicación escrita.

La Comisión Paritaria estará formada como máximo por tres personas en representación de los trabajadores de la empresa, y tres personas en representación de la Dirección de la Empresa, libremente designadas por ésta.

Sor dakizkiokeen arazoak ebazteko, Bitariko Batzordeak kontuan izango ditu, hala badagokio eta aplikatzekoak diren legezko eta arauzko xedapenen ordez, arazoarekiko hurbiltasunagatik egokienak diren sektoreko arauak eta arau profesionalak, batez ere oraintsuko prentsakoak.

Edozein arazo kolektiboren berri eman aurretik, ezinbestekoa izango da Bitariko Batzordeari arazoa aurkeztea eta berarekin aldeko gehiengoa duen akordioa lortzen saiatzea.

III. KAPITULUA
ANTOLAKETARAKO EGITURA

10. artikulua.– Lana antolatzea. Zuzendaritza.

Lanaren antolaketa eta zuzendaritza Enpresaren Zuzendaritzaren eskumena dira, eta, hala dagokionean, indarrean dagoen Langileen Estatutuko 64. artikuluan xedaturiko araudia aplikatuko du, eta langileen ordezkaritza bateratuaren eskumenei dagokienez, eta ordezkari sindikalei dagokienez ostera, Sindikatu Askatasunaren Lege Organikoa, hala badagokio.

11. artikulua.– Lan- eta kontratazio-baldintzak.

1.– Lantaldea zehaztea, ezartzea eta aldatzea Enpresaren Zuzendaritzari dagokio, beharren arabera eta honako hauek kontuan hartuta: berrikuntza teknikoa, lanaren arrazionalizazioa, aukeratutako antolaketa-sistema eta gaia arautzen duten lege-arauak.

2.– Editorial del Pueblo Vasco SA derrigortuta dago langileen ordezkariei lan-baldintzen edozein funtsezko aldaketaren berri ematera, izan aldaketa indibiduala zein kolektiboa, gutxienez 30 eguneko aurrerapenarekin –Langileen Estatutuaren 41. artikulua-. Langileen ordezkariak lantaldearen aldaketa hauek gertatu baino lehen txostena emango du, Langileen Estatutuaren 64. artikuluari jarraiki.

3.– Hitzarmen kolektibo hau indarrean den artean, Enpresak 2007ko abenduaren 31ko lanpostu kopuruari eutsiko dio eta indarrean dagoen Langileen Estatutuan ezarritako arrazoiengatik soilik kendu ahal izango ditu lanpostuak.

4.– Dena dela, Enpresak barne-sustapen profesionala gailentzea ahalbidetuko du, egoera-berdintasunean eta Zuzendaritzaren beraren irizpidearen arabera, baldintzak betetzen dituzten eta horretarako egokitasunak biltzen dituzten hautagaiak daudenean.

12. artikulua.– Jardun-arloak.

Bi jardun-arlo daude Enpresan: erredakzioa eta zerbitzuak.

Erredakzio-arloa egunkaria eta Enpresako bestelako argitalpenen edukiaren alderdi literario eta grafikoez ar-

Para la resolución de las cuestiones que se planteen ante la Comisión Paritaria, ésta tendrá en cuenta, en su caso y subsidiariamente a las disposiciones legales y reglamentarias de aplicación, las normas sectoriales y profesionales que resulten más adecuadas por su proximidad al supuesto, en particular las de prensa más reciente.

Será requisito previo ineludible a la interposición de cualquier conflicto Colectivo el haber planteado la cuestión ante la Comisión Paritaria intentando con ésta un acuerdo mayoritario favorable.

CAPÍTULO III
ESTRUCTURA ORGANIZATIVA

Artículo 10.– Organización del trabajo. Dirección.

La organización y dirección del trabajo es facultad de la Dirección de la Empresa que aplicará, en su caso, el régimen establecido en el artículo 64 del vigente Estatuto de los Trabajadores, respecto a competencias de la representación unitaria de los trabajadores, y la Ley Orgánica de Libertad Sindical respecto a los representantes sindicales, en su caso.

Artículo 11.– Condiciones de empleo y contrataciones.

1.– La determinación, el establecimiento y las modificaciones de la plantilla, corresponden a la Dirección de la Empresa, de acuerdo con sus necesidades y en función de la innovación técnica, la racionalización del trabajo, el sistema de organización adoptado y el respeto a las normas legales que regulan la materia.

2.– «Editorial del Pueblo Vasco, S.A.» está obligada informar a los delegados de personal, con una antelación de, al menos, 30 días -Artículo 41 del Estatuto de los Trabajadores-, de cualquier modificación sustancial ya sea individual o colectiva de las condiciones de trabajo. El Delegado de personal emitirá informe con carácter previo a la ejecución de estas modificaciones de plantilla, de acuerdo con el artículo 64 del Estatuto de los Trabajadores.

3.– Durante el período de vigencia del presente Convenio Colectivo, la Empresa mantendrá el número depuestos de trabajo existente el 31 de diciembre de 2007 y sólo podrá eliminar puestos de trabajo por las causas establecidas en el vigente Estatuto de los Trabajadores.

4.– En cualquier caso, la Empresa propiciará que, en igualdad de circunstancias y cuando existan candidatos que según el exclusivo criterio de la Dirección, cumplan con los requisitos y reúnan las condiciones de idoneidad al efecto, se prime la promoción profesional interna.

Artículo 12.– Áreas de actividad.

En la Empresa se diferencian dos áreas de actividad: redacción y servicios.

El área de redacción agrupará los cometidos habituales propios de la elaboración literaria y gráfica del

duratzen da, betiere argitalpen bakoitzaren informazio edo iritzi mailaren arabera.

Zerbitzu-arloa zeregin instrumentalez, laguntzakoez eta erredakzioaren euskarria izateaz arduratzen da, hori horrela erredakzioak funtziona dezan beharrezkoa den elaborazioa, prestaketa, banaketa, ekipamendua eta mantentzea dira haren zereginak. Horretaz gainera, langileei behar bezala erantzutea, aplikatu beharreko arauak betetzea, pertsona zein gauzen segurtasuna zaintzea, eta edozein enpresak berezkoak dituen zereginak ere bere ardurapekoak izango dira.

Horien baitan zeregin exekutiboak bilduko dira, baita aholkularitzakoak, teknikoak eta administratiboak edo informatikoak ere.

13. artikulua.– Lanbide-taldeak.

1.– Honakoak dira erredakzioan dauden lanbide-taldeak:

– Erredaktore-burua
– Saileko burua
– Erredaktorea
– Erredakzioko laguntzailea

2.– Honakoak dira zerbitzu arloan dauden lanbide-taldeak:

– Saileko zuzendaria
– Arloko burua
– Administrazioko langileak
– Saltzailea
– Teknikaria

3.– Irizpide objektiboak erabiliko dira langileak talde horietako batean sartzeko; edonola ere, sailkapen hori langileen duintasunaren kaltetan izan dadin ekidingo da.

Talde bakoitzari dagozkion ezaugarri profesionalak 4. eranskinean zehazten dira.

14. artikulua.– Ordainsari-maila.

1.– Lehen aipatu lanbide-talde bakoitzerako lau ordainsari maila ezarriko dira gehienez ere, sarrera maila barne. Betiere ezarritako ordainsariaren arabera.

2.– Langileak maila batean edo bestean sartzea langileari ezartzen zaion ordainsariaren araberakoa izango da, sarrera mailakoa izan ezik. Altako datatik 18 hilabete pasatu ostean, langileak sarrera mailan jarraituko balu, automatikoki aplikatuko zaio lehenengo ordainsari mailari dagokion igoera.

3.– Langile bat maila altuagoko lanbide-talde batera pasatzeko promozionatzen denean eta talde horretako sarrera mailan badago, 18 hilabete igaro ostean, automatikoki aplikatuko zaio lehenengo ordainsari mailari dagokion igoera.

4.– Langileen hiru ordezkarik eta Enpresaren beste hiruk osatuko dute batzordea eta gutxienez urtean bi-

contenido del periódico y de las restantes publicaciones de la Empresa, en los órdenes informativos y de opinión propios de cada una de las publicaciones.

El área de servicios agrupará el conjunto de funciones instrumentales, auxiliares y de soporte de la redacción para la elaboración, confección, distribución, equipamiento y mantenimiento necesarios para el funcionamiento de aquélla, la debida atención del personal, el cumplimiento de las disposiciones normativas de aplicación, la seguridad de las personas y las cosas y demás finalidades inherentes a la condición Empresarial.

Comprenderá tanto las de carácter ejecutivo como las de asesoramiento, las técnicas y las administrativas o informáticas.

Artículo 13.– Grupos profesionales.

1.– En el área de redacción los grupos profesionales serán los siguientes:

– Redactor Jefe.
– Jefe de Sección.
– Redactor.
– Ayudante de Redacción.

2.– En el área de servicios los grupos profesionales serán los siguientes:

– Director de Departamento.
– Jefe de Área.
– Personal administrativo.
– Comercial.
– Técnico.

3.– La ubicación de cada empleado en uno de estos grupos profesionales responderá a criterios objetivos, evitándose en todo caso, que tal clasificación atente contra la dignidad profesional de los empleados.

La caracterización profesional de cada uno de estos grupos profesionales, será la detallada en el anexo 4.

Artículo 14.– Niveles salariales.

1.– En cada uno de los grupos profesionales antes enunciados se establecerá en función de la retribución estipulada, un máximo de cuatro niveles salariales, incluido el nivel de ingreso.

2.– La ubicación de cada empleado en uno de estos niveles salariales será consecuencia del importe estipulado para su retribución, salvo el nivel de ingreso. Transcurridos 18 meses desde la fecha de alta del empleado si éste continuase en el nivel de ingreso, se le aplicará automáticamente el incremento que corresponda al nivel salarial 1.

3.– El empleado que sea promocionado a un grupo profesional superior y esté encuadrado en el nivel salarial de ingreso establecido para ese grupo profesional, transcurridos 18 meses, se le aplicará automáticamente el incremento que corresponda al nivel salarial 1.

4.– Una comisión compuesta por tres representantes de los trabajadores y tres representantes de la Empre-

tan bilduko da, egoki irizten diren bestelako ordainsari mailen igoerak aztertu eta onartzeko.

Batzorde horrek ondoko irizpideak hartuko ditu kontuan: lanbide-trebakuntza, dedikazioa, eraginkortasuna, ekimen maila, esperientzia, arduren gehitzea, langileak dituen zereginen konplexutasuna, eta lanaren emaitzaren hobekuntzan eragina duen edozein. Lan mailaz igotzeko proposamenak egiteko ahalmena izango dute langileen ordezkariek, Enpresaren ordezkariek, interesdunak berak eta mailaz goragokoek. Erabakiak batzordekide guztien adostasunarekin hartuko dira.

15. artikulua.– Mugigarritasun funtzionala.

1.– Enpresaren baitako mugigarritasun funtzionalak izango dituen mugak lan-prestazioan jarduteko eta lanbide-taldearen parte izateko eskatutako titulazio akademiko edo profesionalei buruzkoak izango dira soilik.

2.– Lan-taldeari edo honen maila baliokideei ez dagozkien betebeharrak burutzeko, mugigarritasun funtzionala berau justifikatzen duten arrazoi teknikoak edo antolakuntzazkoak badaude soilik izango da egingarri, eta betiere beharrezko den denboran. Maila apalagoko betebeharrak agintzea ekoizpen-jardueraren premiazko edo ustekabeko beharrek justifikatu beharko dute. Enpresariak egoera honen berri eman beharko die langileen ordezkariei.

3.– Langilearen duintasuna, prestakuntza eta sustapen profesionala kaltetu gabe burutuko da beti mugigarritasun funtzionala, eta burutzen dituen betebeharrei dagokien ordainsaria eskuratzeko eskubidea izango du langileak, maila apalagoko betebeharrak agintzen zaizkionean izan ezik; kasu hauetan jatorrizko ordainsaria mantenduko da. Mugigarritasun funtzionalaren ondorioz, ohiko betebeharrak ez direnak burutzean agertutako trebetasunik eza eta egokitasunik eza ezin izango dira kaleratzeko arrazoi objektibo izan.

4.– Langile bati berea baino ordainsari maila altuagoa duten zereginak esleitu ahal izango zaizkio lau hilabetez urte berean edo sei hilabetez bi urtetan. Epe hori igarotakoan, Enpresak haren zereginetara itzultzea edo momentu horretan dituen zereginei dagokien ordainsari mailara igotzea erabaki beharko du. Igoera legez edo konbentzionalki ez denean posible, esleitutako ordainsari maila eta duen zereginari benetan dagokion ordainsariaren arteko aldea kobratzeko eskubidea izango du langileak.

5.– Artikulu honetan aurreikusitako egoeretan sartzen ez diren eta hitzartu gabe dauden betebeharrak aldatzeko alderdien adostasuna beharko da; halakorik ezean, lan-baldintzen funtsezko aldaketetarako aurreikusitako arauen edo hitzarmen kolektiboan xede horretarako ezarritako arauen eraginpean ezarriko da.

sa se reunirá al menos dos veces al año para estudiar y aprobar los ascensos de categoría laboral que sean pertinentes.

Esta comisión tendrá en cuenta la capacitación profesional, la dedicación, la eficiencia, la iniciativa, la experiencia, el aumento de responsabilidades, la complejidad de las tareas encomendadas al trabajador y todo aquello que globalmente suponga una mejora en el resultado de su trabajo. Tendrán potestad para proponer ascensos de categoría laboral, los representantes de los trabajadores, los representantes de la Empresa, el propio interesado y sus superiores jerárquicos. Las decisiones se tomarán por unanimidad de los miembros de la comisión.

Artículo 15.– Movilidad funcional.

1.– La movilidad funcional en el seno de la Empresa no tendrá otras limitaciones que las exigidas de las titulaciones académicas o profesionales precisas para ejercer la prestación laboral.

2.– La movilidad funcional para la realización de funciones no correspondientes al grupo profesional o categorías equivalentes sólo será posible si existiesen razones técnicas u organizativas que lo justificasen y por el tiempo imprescindible para su atención. En el caso de encomienda de funciones inferiores ésta deberá estar justificada por necesidades perentorias o imprevisibles de la actividad productiva. El empresario deberá comunicar esta situación a los representantes de los trabajadores.

3.– La movilidad funcional se efectuará siempre sin menoscabo de la dignidad del trabajador y sin perjuicio de su formación y promoción profesional, teniendo derecho a la retribución correspondiente a las funciones que efectivamente realice, salvo en los casos de encomienda de funciones inferiores, en los que mantendrá la retribución de origen. No cabrá invocar las causas del despido objetivo de ineptitud sobrevenida o de falta de adaptación en los supuestos de realización de funciones distintas de las habituales como consecuencia de la movilidad funcional.

4.– Se podrá encomendar a un trabajador el desempeño de funciones correspondientes a un grupo profesional superior al que ostenta cuatro meses durante un año o seis meses durante dos años. Cumplido ese plazo, la empresa deberá optar por reintegrarle a sus funciones o ascenderle al nivel salarial que corresponda a las funciones que estuviera desempeñando. Cuando no proceda legal o convencionalmente el ascenso, el trabajador tendrá derecho a la diferencia retributiva entre el nivel salarial asignado y la función efectivamente realizada.

5.– El cambio de funciones distintas de las pactadas no incluido en los supuestos previstos en este artículo requerirá el acuerdo de las partes o, en su defecto, el sometimiento a las reglas previstas para las modificaciones sustanciales de condiciones de trabajo o a las que a tal fin se hubieran establecido en Convenio Colectivo.

16. artikulua.– Leku-aldaketak.

Enpresak ezingo du bere baitarik inongo langilerik lekualdatu Editorial del Pueblo Vasco SAtik Batasun Editoriala Merkataritza Taldearen beste sozietate batera, partaidetua edo atxikia izan, aurrez langileen ordezkariei jakinarazi gabe, ezta langilearen adostasunik gabe ere.

Taldeko enpresen artean langile bat lekualdatzeko baldintzak arautuko dituen barne-prozedura bat landuko du Enpresak.

Lekualdaketa baten ondorioz, langilea dagokion probintziatik kanpo bidali ahal izateko, Enpresaren eta langilearen arteko adostasuna beharko da. Adostasunik lortu ezik, indarrean dagoen Langileen Estatutuaren 40. artikuluan ezarritako izapideak egin beharko dira.

Dena dela, gai honetan, langileen ordezkariei entzun beharko zaie.

IV. KAPITULUA
LAN-DENBORA

17. artikulua.– Lanaldiak.

Lan-astea hogeita hamasei ordukoa izango da.

Aldaketa justifikatzen duten arrazoiak badaude, lanaldia aldatu ahal izango da (jarraia, murriztua, e.a.), edo asteko orduak irregularki banatu, betiere Enpresaren Zuzendaritzak baimena ematen badu. Aldaketa egiteko interesdunaren eta langileen ordezkariaren oniritzia beharko da, eta ordezkaria bereziki arduratuko da banaketa hori langilearen promoziorako oztopo izan ez dadin.

Egun libreak pilatzeko Erredakzioko Zuzendaritzaren baimena ezinbestekoa izango da, eta aurrez, ataleko arduradunaren justifikazioa beharko da. Pilatze horiek lehenbailehen errekuperatuko dira, eta alderdiei ondoen dagokien eran.

Lanean asteko edozein egunetan hasita ere, lan egindako bost eguneko bi libratuko dira.

Udako hiletan (uztaila eta abuztua) lanaldi jarraia aplikatu ahal izango da beharrek ahalbidetzen duten sailetan, eta Bitariko Batzordeak aztertu ondoren.

18. artikulua.– Ordutegia.

1.– Ordutegia eta lan-txandak sail bakoitzak izan ohi dituenak izango dira.

2.– Sartu eta atera puntuan egin beharko da, sartzeko bost minutuko tartea utziko delarik. Erredakzioko langileek, beren lanaren ezaugarri bereziengatik, ez dute aurreko idatz-zatian ezarritakoa bete beharko.

Artículo 16.– Traslados.

La empresa no podrá unilateralmente trasladar a ningún empleado/trabajador de «Editorial del Pueblo Vasco, S.A.» a otra sociedad del Grupo Mercantil Unidad Editorial, participada o adscrita, sin informar previamente a los representantes de los trabajadores, ni sin contar con el consentimiento del empleado/trabajador.

La Empresa elaborará un procedimiento interno que regule las condiciones de traslado de un trabajador entre empresas del Grupo.

Los traslados fuera de los límites de la provincia donde el trabajador desempeñe su labor, deberán ser previamente pactados entre éste y la empresa, la cual, en defecto de acuerdo, utilizará los trámites que establece el artículo 40 del vigente Estatuto de los Trabajadores.

En todo caso, en esta materia, deberán ser oídos los Delegados de Personal.

CAPÍTULO IV
TIEMPO DE TRABAJO

Artículo 17.– Jornada.

La jornada laboral será de treinta y seis horas semanales.

Por razones justificadas se podrá disfrutar de otro tipo de jornada (intensiva, reducida, etc.) o de una distribución irregular de las horas semanales, previa autorización de la Dirección de la Empresa. Su aplicación deberá contar con el visto bueno del afectado y del Delegado de personal que velará especialmente porque la distribución regular de la jornada no perjudique la promoción laboral del trabajador.

Las acumulaciones de días de libranza trabajados sólo podrán ser autorizadas por la Dirección de la Redacción, previa justificación del responsable de la sección. Estas acumulaciones tendrán que ser recuperadas cuanto antes, de la forma que más convenga a las partes implicadas.

Por cada cinco días trabajados, habrá dos días de libranza, independientemente del día en que se comience el trabajo en la semana.

Durante los meses de verano (julio y agosto) podrá aplicarse la jornada continuada en aquellos departamentos en los que las necesidades lo permitan y tras ser estudiado por la Comisión paritaria.

Artículo 18.– Horario.

1.– El horario y los turnos de trabajo serán los habituales de cada departamento.

2.– Las horas de entrada y salida del trabajo se entienden en punto, con una tolerancia de cinco minutos en la entrada. El personal de redacción, por las especiales características de su trabajo, no estará sujeto a lo previsto en el párrafo anterior.

3.– Hitzarmen kolektibo honen eraginpean dauden langile guztiek Enpresaren Zuzendaritzak asistentzia kontrolatzeko une bakoitzean ezar ditzan sistemak beteko dituzte.

4.– Edonola ere, indibidualki hartzen den langilearen ikuspuntutik, lanaldiaren amaieratik hurrengo lanaldiaren hasierara hamabi orduko tartea egongo da gutxienez.

5.– Gaueko lanari dagokionez, indarrean dagoen legerian xedaturikoa izango da kontuan.

19. artikulua.– Asteburuak eta jai-egunak.

Prentsako lanaren berezitasuna kontuan harturik, asteburu eta jaiegunetan egunkaria eta horren osagarri den edo ez den beste edozein argitalpen editatzeko eta banatzeko behar diren zerbitzuak beteko dira.

20. artikulua.– Aparteko orduak.

1.– Lanaldia luzatzeari eta aparteko orduei dagokienez, Langileen Estatutuan eta aplika daitezkeen gainontzeko arauetan agindutakoa beteko da.

2.– Erredakzioko langileek euren nagusien eskariz lanaldia luzatzen dutenean, xedapen libreko plusa jasotzeko eskubidea izango dute.

21. artikulua.– Oporrak.

Hitzarmen honek barne hartzen dituen langile guztiek hogeita zortzi (28) laneguneko oporrak izango dituzte, edo lan egindako aldiaren zati proportzionala. Oporrak txandaka hartuko dira urte osoan zehar, sail edo zeregin bakoitzeko zerbitzu-beharren arabera.

Ahal denetan, oporrak udako hiletan har daitezen ahaleginduko da zuzendaritza.

Oporrak kontatzeko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko aldia hartuko da erreferentzia-aldi gisa.

Enpresa uzten denean, abenduaren 31 arte benetan lan egindako aldiari dagozkion opor egunetatik gora hartutakoak kenduko dira kitapenetik.

Urte bakoitzeko martxoaren 1a arte izango da aurreko urteko opor eta egun libreak hartzeko eskubidea, eta beraz, baten batek egun libreak baditu hartzeke galdu egingo ditu, salbu eta egunkariko zuzendaritzak baimendutako kasu pertsonaletan.

V. KAPITULUA
KONTRATAZIOA ETA SUSTAPENA

22. artikulua.– Aldi baterako kontratuak.

1.– Enpresak honako arrazoiengatik eta ondoko iraupenarekin gauzatu ahal izango ditu aldi baterako kontratuak:

3.– Todo el personal incluido en el ámbito de este Convenio Colectivo deberá someterse a los sistemas de control de asistencia que la Dirección de la Empresa estime en cada momento.

4.– En todo caso, desde la perspectiva del trabajador individualmente considerado, entre el final de una jornada y el comienzo de la siguiente mediarán como mínimo doce horas.

5.– En materia de trabajo nocturno se estará a lo dispuesto en la legislación vigente.

Artículo 19.– Fines de semana y festivos.

En atención a la particularidad del trabajo en prensa, durante los fines de semana y festivos se prestarán los servicios necesarios para la edición y distribución del periódico y cualquier otra publicación complementaria o no al mismo.

Artículo 20.– Horas extraordinarias.

1.– En materia de prolongación de jornada y horas extraordinarias se estará a lo dispuesto en el Estatuto de los Trabajadores y demás normas aplicables.

2.– El personal de redacción tendrá derecho a percibir el plus de libre disposición cuando prolonguen su jornada laboral por indicación de sus responsables.

Artículo 21.– Vacaciones.

Todo el personal afectado por el presente Convenio tendrá derecho a veintiocho días laborables al año de vacaciones o a su parte proporcional al tiempo trabajado, que serán repartidos en turno durante todo el año, según las necesidades del servicio en cada sección o tarea.

En aquellos casos en que sea posible, la Dirección procurará que el disfrute de las vacaciones coincida con los meses de verano.

A efectos del cómputo de vacaciones, se tomará como período de referencia el comprendido entre el 1 de enero y el 31 de diciembre.

Cuando se cause baja en la Empresa, se descontarán de la liquidación los días de vacaciones disfrutados que excedan de la parte proporcional al tiempo de trabajo efectivo hasta el 31 de diciembre.

El día 1 de marzo de cada año finalizarán todos los derechos de vacaciones y libranzas del año anterior y, por lo tanto, el que tenga días pendientes los perderá, a excepción de los casos personales que sean autorizados por la Dirección del periódico.

CAPÍTULO V
CONTRATACIÓN Y PROMOCIÓN

Artículo 22.– Contratación temporal.

1.– La Empresa únicamente podrá celebrar contratos temporales por las siguientes causas y duraciones:

a) Lan edo zerbitzu jakin bat burutzeko, Enpresaren jardueran berezko autonomia eta funtsezkoa dituena, eta iraupen jakinik ez duena.

Kontratuaren iraupena burutu beharreko lanak edo zerbitzuak berak zehaztuko du.

b) Zereginen pilaketak direla eta, gehiegizko eskaerek edo merkatu-egoerak hala eskatzen dutenean, Enpresaren ohiko jarduera izanik ere. Iraupena sei hilabetekoa izango da gehienez hamabi hilabeteko aldian, azaldutako arrazoiak gertatzen diren unetik aurrera.

c) Lana etetea edo kontratua haustea justifikatzen duen gaixotasun, amatasun, opor edo legezko bestelako arrazoiren batengatik langileak ordezkatzeagatik, honek lanpostua gordetzeko eskubidea izango duelarik. Ordezkatuaren izena eta ordezkapenaren arrazoia zehaztu beharko dira. Kasu honetan, kontratuak ordezkatuaren etendurak dirauen denbora bera iraungo du, eta txanda egokiro burutzeko behar den baitezpadako denbora soilik luzatu ahal izango da.

d) Hitzarmen hau indarrean den artean legez ezar litekeen beste edozein arrazoirengatik.

2.– Enpresako langile finko izatea erdietsiko dute lehenago adierazitako kontraturen baten titular izan direnek, langilearen borondatearen gainetik kontratuaren xedea desnaturalizatua izan delarik; honela, behin-behineko kontratuan nagusi den kausalitate-printzipioa hautsiko da.

Halaber, hemezortzi hilabete baino gehiagoz jarraian behin-behineko kontratuak izan dituztenek finkotasuna erdietsiko dute. Dena dela, Enpresak behin-behineko kontratuen antzinatasunen akumulatzea kontuan izango du langilea finko gisa lantaldera sartzen denean.

3.– Praktikaldiko kontratua: behin-behineko kontratazio mota hau lan-esperientziarik ez duten lizentziadun eta tituludunei begira erabiliko da, titulua eskuratu eta hurrengo lau urtetan. Beren soldata maila 2. eranskinean sarrera maila gisa ageri dena izango da.

4.– Indarrean dagoen legeriak kasu bakoitzerako ezartzen dituen baldintzekin bat izenpetu ahal izango dira lanaldi partzialeko kontratuak.

5.– Gai honetan, Bitariko Batzordeak legez dagozkion ahalmenak erabiliko ditu.

23. artikulua.– Probaldiak.

1.– Editorial del Pueblo Vasco SAn sartzen diren langileen probaldia sei hilabetekoa izango da lizentziadunentzat eta bi hilabetekoa gainontzekoentzat, indibidualki bestela hitzartu ezean.

Dena dela, kazetarientzat probaldia sei hilabetekoa izango da beti.

a) Para la realización de una obra o servicio determinados, con autonomía y sustantividad propia dentro de la actividad de la Empresa y con duración incierta.

La duración del contrato vendrá determinada por la de la obra o servicio de que se trate.

b) Por acumulación de tareas, exceso de pedidos o circunstancias del mercado que así lo exijan, aunque se trate de la actividad normal de la Empresa. La duración será por un máximo de seis meses dentro de un período de doce meses, contados a partir del momento en que se produzcan las causas reseñadas.

c) Por sustitución de trabajadores con derecho a reserva de puesto de trabajo, en supuestos de enfermedad, maternidad, vacaciones o cualquier otro que justifique legalmente la interrupción del trabajo o la suspensión del contrato, debiéndose especificar el nombre del sustituido y la causa de la sustitución. La duración en este caso vendrá determinada por la de la interrupción o suspensión del sustituido, que sólo podrá prolongarse por el tiempo indispensable para efectuar ordenadamente el relevo.

d) Por cualquier otra causa que fuese establecida legalmente en el período de vigencia del presente Convenio.

2.– Adquirirán la condición de trabajadores fijos en la Empresa aquellos que hayan sido titulares de un contrato de los arriba especificados cuyo objeto se haya desnaturalizado por causas ajenas a la voluntad del empleado, quebrándose así el principio de causalidad que presidirá en todo caso la contratación temporal.

Asimismo, producirá la adquisición de fijeza el encadenamiento de contratos temporales durante más de dieciocho meses. En todo caso, la Empresa tendrá en cuenta la acumulación de antigüedad de los contratos temporales que proceda cuando el trabajador se incorpore como fijo a la plantilla.

3.– Contratos en prácticas: esta modalidad de contratación temporal se utilizará respecto a licenciados y titulados, sin experiencia profesional, dentro de los cuatro años inmediatamente siguientes a la obtención del título. Su nivel salarial será el que figura en el anexo 2como nivel de ingreso.

4.– Los contratos a tiempo parcial podrán suscribirse de acuerdo con las condiciones que la legislación vigente establezca en cada caso.

5.– La Comisión Paritaria ejercerá en esta materia las facultades que legalmente le correspondan.

Artículo 23.– Períodos de prueba.

1.– La duración de los períodos de prueba para el personal de nuevo ingreso en «Editorial del Pueblo Vasco, S.A.» salvo pacto individual, será de seis meses para los licenciados y de dos meses para el resto del personal.

En todo caso, para los periodistas el período de prueba será siempre de seis meses.

2.– Probaldian dagoen langileak bere kategoria profesionalari eta lanpostuari dagozkion eskubide eta betebeharrak edukiko ditu, lantaldekoa bailitzan, baina horietatik kanpo geratuko dira lan-harremanak suntsitzetik eratortzen direnak. Suntsipena alderdi bietatik edozeinek eska dezake aurrez jakinarazpenik egin gabe eta batek ere ez du kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik edukiko.

3.– Probaldia amaitzean atzera egiterik egon ez bada, kontratuak ondorio guztiak edukiko ditu eta lanean aritutako aldia langilearen antzinatasun gisa aintzat hartuko da.

24. artikulua.– Sarrerak.

1.– Enpresara sartzeko langileei eskatu beharreko baldintzak Enpresaren Zuzendaritzak zehaztuko ditu, indarrean dagoen legeriak enplegurako ezartzen duen esparruaren baitan, eta Langileen Estatutuko 64. artikuluan langileen ordezkariei gai honetan ematen zaizkien eskuduntzak errespetatuz.

2.– Enpresara sartzen den langile berriak ezingo du aldi berean beste lan baten bidez Gizarte Segurantzan kotizatzen aritu. Dena dela, Enpresako sailetako langileek hartzen dituzten egun libreak betetzeko lanaldi partzialeko kontratua dutenak salbuetsita geratuko dira.

Enpresak dauden lanpostu hutsen berri emango du, bai eta betetzeko kasu bakoitzerako eskatzen diren baldintzena ere. Bereziki aintzat hartuko dira sektorean esperientzia duten langabetuak.

3.– Langile berriak hautatu eta kontratatzeko prozesuetan, gerora lan-harremana garatzerakoan nolabait eragin dezaketen datu pertsonal eta profesionaletan egia osoa esatea eskatuko da. Datuak ezkutatu edo faltsutzea kontratua suntsitzeko arrazoi izango da.

Kontratu mugagabea duten langileen bajak Enpresan, Enpresaren beraren beharrei, bajaren arrazoiei, merkatuaren egoerari eta hautagaien profilari ondoen egokitzen zaizkien kontratu-modalitateen bidez beteko dira. Edonola ere, Enpresako kontratu mugagabeen portzentajea oro har hitzarmen hau izenpetzeko unean zeuden parametroetan mantenduko da.

VI. KAPITULUA
KAZETARITZA JARDUERAREN EGINKIZUN ESPEZIFIKOAK

25. artikulua.– Jabetza intelektuala.

1.– Editorial del Pueblo Vasco SAri, El Mundo egunkariaren editore legez, bere gehigarri eta aldizkariak barne, paperezko edizioan zein digitalean, Jabetza Intelektualari buruzko 1/1996 Legearen 8. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaio.

2.– Durante el período de prueba el trabajador tendrá los derechos y obligaciones correspondientes a su categoría profesional y al puesto de trabajo que desempeñe como si fuera de plantilla, excepto los derivados de la resolución de la relación laboral que podrán producirse a instancia de cualquiera de las partes durante su transcurso sin necesidad de preaviso ni alegación de causa y sin que ninguna de ellas tenga derecho a indemnización.

3.– Transcurrido el período de prueba sin que se haya producido el desistimiento, el contrato producirá plenos efectos, computándose el tiempo de los servicios prestados en la antigüedad del trabajador.

Artículo 24.– Ingresos.

1.– La determinación de las condiciones exigibles para el personal de nuevo ingreso será facultad de la Dirección de la Empresa, dentro del marco que en política de empleo establece la legislación vigente, respetando las competencias que en esta materia otorga el artículo 64 del Estatuto de los delegados de personal.

2.– El personal de nuevo ingreso no podrá estar realizando ningún otro trabajo sujeto a cotización a la Seguridad Social, exceptuando aquellas contrataciones que se realicen a tiempo parcial para cubrir las libranzas del personal de los distintos departamentos de la Empresa.

La Empresa dará a conocer las vacantes existentes con quince días de antelación, así como los requisitos exigibles en cada caso para cubrirlas. Merecerán especial consideración los trabajadores con experiencia en el sector que se encuentren en desempleo.

3.– En los procesos de selección y contratación de personal nuevo, será exigible a éste la máxima veracidad en cuanto a datos personales y profesionales que puedan afectar de algún modo al desarrollo posterior de la relación laboral. La ocultación o falseamiento de datos será causa justificativa de la extinción del contrato.

Las bajas en la Empresa de trabajadores con contrato indefinido se cubrirán mediante las modalidades contractuales más adecuadas a las necesidades Empresariales, la causa de la baja, situación del mercado y perfil de los candidatos. En cualquiera de los casos, globalmente el porcentaje de contratos indefinidos en la empresa se mantendrá en los parámetros existentes a la firma del presente Convenio.

CAPÍTULO VI
DEBERES ESPECÍFICOS DE LA ACTIVIDAD PERIODÍSTICA

Artículo 25.– Propiedad Intelectual.

1.– A «Editorial del Pueblo Vasco, S.A.», como editora del periódico El Mundo, incluyendo sus suplementos y revistas, tanto en su edición impresa como digital, le resulta de aplicación lo dispuesto en el artículo 8 de la Ley 1/1996, de Propiedad Intelectual.

c.c) Sexu-jazarpen edo jazarpen moralekoak diren jokamoldeak, halakotzat hartuko dira konbenio hone-

p) La permuta de turnos, servicios o puestos sin la correspondiente autorización, si con ello se produce algún perjuicio de carácter grave para la Empresa o para el resto de trabajadores o se realiza de forma habitual.

q) La imprudencia en los actos de trabajo, si de la misma deriva daño o perjuicio para los trabajadores, para el personal ajeno a la Empresa o avería para las instalaciones.

r) La negligencia, desidia o descuido en el cumplimiento de las tareas que se tengan encomendadas si como consecuencia de esta actitud, se afectase al resto de los trabajadores en el desempeño de sus funciones o se causaren perjuicios a la Empresa.

s) La negligencia, desidia o descuido en la conservación de los locales, mobiliario, documentos y, en general, de las instalaciones y material propiedad de la Empresa cuando de la misma se deriven perjuicios graves.

t) La falta de veracidad comprobada en informes o manifestaciones verbales o escritas referentes al servicio de las que de las que deriven consecuencias negativas o perjuicio para la Empresa o su personal, sin perjuicio de las responsabilidades en las que el trabajador pueda incurrir por estos hechos.

u) La aportación inexacta de datos o partes a la Empresa que cause perjuicios graves a la misma.

v) Rectificar las horas marcadas en la ficha de control de horario en más de cuatro ocasiones, o en menos si el hecho ha comportado otras consecuencias negativas.

w) Firmar, fichar o simular de cualquier otro modo la presencia de otro trabajador, por más de una vez.

x) Las discusiones o altercados habituales en el trabajo por cualquier motivo que produzcan escándalo, temor o violencia, o que sin ser habituales, dañen la imagen y prestigio de la Empresa o de sus trabajadores. Se entenderá habitual si el trabajador ha sido amonestado, verbalmente o por escrito, dos veces por el mismo motivo.

y) Violar el secreto de la correspondencia, correo electrónico, o de documentos reservados de la entidad o del personal relacionado con la misma.

z) El hurto o robo cometido dentro de las dependencias de la Empresa o durante el acto de servicio en cualquier lugar, sin perjuicio de las acciones que por este hecho la Empresa pueda entablar contra el autor.

a.a) Hacer desaparecer, inutilizar, destrozar o causar voluntariamente desperfectos de alguna consideración en aparatos, mobiliario, documentos y, en general, en cualquier tipo de material o instalación de la Empresa.

b.b) Simular o agravar maliciosamente cualquier enfermedad o accidente.

c.c) Las conductas constitutivas de acoso sexual o moral, entendiendo por tales las agresiones físicas o ver-

tan horri buruzko kapituluan araututako eraso fisikoak edo hitzezkoak.

d.d) Hitzezko edo ekintzazko tratu txarrak, sei hilabete baino gutxiagoko aldian ohiko bilakatzen ari direnak eta nagusiekiko, menpekoekiko edo lankideekiko errespetu- eta kontsiderazio-falta direnak.

e.e) Nagusiak, Enpresan lan egiten dutenak nahiz horien senideak ahoz zein fisikoki erasotzea.

f.f) Lankideak, menpekoak, nagusiak edo Enpresarekin zerikusia duen edozein erasotzea.

g.g) Laneko segurtasun eta higiene arloko arauak ez betetzea, horren ondorioz pertsonei nahiz materialei ondorio larriak eragiten bazaizkie.

h.h) Ehun eta hogei mezu elektroniko pertsonal baino gehiago bidaltzea hilabeteko epean, justifikaziorik gabe.

i.i) Bere lanarengatik langileak ezagutu ditzakeen Datuak Babesteko Lege Organikoak babesturiko datuak zabaldu eta manipulatzea.

j.j) Izaera mugatuko eta legeak babesturiko fitxategiak pertsonalki sortzea edo erabiltzea.

k.k) Informatika-protokoloak baimendutako denbora baino luzeagoz internetera sartzea lanekoak ez diren helburuetarako, jarrera honek burututako lan kopuruan edo kalitatean eragin negatiboa duenean.

2.– Oso hutsegite larriak izango dira hauek ere:

a) Hutsegite larri bat berriz egitea.

b) Bereziki gaitzesgarri izango 1. puntuan zerrendatutakoen antzeko beste edozein hutsegite, berariaz aurreikusita ez egonik ere, eragindako kalteagatik, eragin ahal izan den diziplina hausteagatik edo eredu txarrarengatik, ekarritako edo ekarri ahal izan den ospegalera, edo hauetan egilearen malezia berezia edo asmoa sumatzen bada.

Era berean, gisa honetako hutsegitetzat hartuko dira hitzarmenaren berariazko protokoloetan eta eranskinetan zehaztutakoak.

c) Oso hutsegite larritzat joko da benetakoa ez den edota iraingarria den informazioa argitaratzea, Enpresaren edozein argitalpenen ospe onari eragiten badio eta kazetaritzako edo sektoreko egiteko propioak hausten badira; bai eta egunkaria edo Enpresaren beste argitalpen batzuk berandu argitaratzea edo ohiko egun eta orduetan argitaratzeko ezintasuna eragiten duten egintzak ere.

bales reguladas en el capítulo correspondiente de este mismo Convenio.

d.d) Los malos tratos de palabra u obra que en un periodo de referencia inferior a seis meses, vengan produciéndose con cierta asiduidad y que supongan una falta de respeto y consideración hacia los superiores, subordinados o compañeros.

e.e) Las ofensas verbales o físicas a los superiores o a las personas que trabajen en la Empresa o a los familiares que convivan con ellos.

f.f) Las agresiones a compañeros, subordinados, superiores o a cualquier persona relacionada con la Empresa.

g.g) Incumplir las normas en materia de seguridad e higiene en el trabajo cuando de las mismas se deriven daños materiales o personales, de carácter grave.

h.h) El envío de más de ciento veinte correos electrónicos personales en el plazo de un mes sin que medie justificación oportuna.

i.i) La difusión o manipulación de datos protegidos por la Ley Orgánica de Protección de Datos de los que el trabajador pudiera tener conocimiento con ocasión de su relación laboral.

j.j) La creación a título personal o el uso de ficheros que contengan datos de carácter restringido y protegidos por la Ley.

k.k) El acceso a Internet con fines no profesionales durante un tiempo superior al permitido por el protocolo informático cuando este comportamiento repercuta negativamente en la cantidad o calidad del trabajo desempeñado.

2.– Se considerarán asimismo faltas muy graves:

a) La reiteración de alguna falta grave.

b) Cualquier otro incumplimiento análogo a los listados en el número 1 que, aun sin estar específicamente previsto, deba considerarse particularmente reprochable por el perjuicio producido, el quebranto de la disciplina o el mal ejemplo que haya podido originar, el desprestigio que haya causado o el sometimiento a riesgo claro de haberse podido causar, o la particular malicia o intencionalidad en su autor que quepa apreciar.

Asimismo tendrán esta consideración las conductas reguladas como tales en los protocolos y anexos específicos del Convenio.

c) Se entenderán faltas muy graves, en todo caso, aquellas que produzcan la publicación de información no veraz o injuriosa, que afecten al prestigio de cualquiera de las publicaciones de la Empresa y las que supongan violación de los deberes y prácticas propios de la profesión periodística o del sector, o las que causen retraso o imposibilidad de publicación en sus fechas y horas habituales del periódico o de las otras publicaciones de la Empresa.

d) Erredakzioko eta erantzukizun bereziko postuentzat bereziki, hutsegitea egiteak berarekin ekar lezakeen konfiantza hondatzea hartuko da kontuan. Horrenbestez, oso larritzat hartuko dira ondokoak, salbuesteko egoera berezietan gertatzen ez badira bederen: funtsak desbideratzea, lapurretak, kontabilitateko irregularitasunak, gastuen simulazioa edo antzekoak, diren zenbatekoak direla.

e) Era berean, Enpresak duen egiteko berezia kontuan hartuta, oso hutsegite larritzat joko da El Mundorekin, honen kaltetan, lehian dabiltzan egunkarien enpresako arduradunekin izandako edozein lankidetza edo elkarkeria, aipatu egunkaria zabaltzen den edozein herritan egiten denean.

f) Eskubide konstituzionalak mugatzen edo urratzen dituztenak.

71. artikulua.– Hutsegitea errepikatzea.

Aurreko artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako, hutsegite arin nahiz larri bat errepikatu dela iritziko da hutsegitetzat kalifikatutako jokamoldeetan behin baino gehiagotan erorita, Enpresak langileari zigorra jarri edo zigorra konmutatu dionean, jokabide hori egotzi dionean eta ohartarazi dionean ezen, jarrera hori berriz hartuz gero, errepikatu dela iritziko dela ondorio hauetarako.

Hutsegitea egotzi baina zehapenik jartzen ez denean, enplegatuak Enpresak hartutako erabakia inpugnatu ahal izango du, aplikatzekoak diren legezko xedapenak horretarako bide ematen badute, zehapena jartzen den kasuetan izaten diren baldintza beretan.

Hutsegite baten eta hurrengoaren artean urtebetetik gora igaroz gero, ez da errepikapentzat hartuko.

72. artikulua.– Hutsegite mota batzuei buruzko oharrak.

1.– Asistentzia eta puntualtasunari dagokienez, justifikatu gabekotzat joko dira ondoko kasu hauek:

Aurrez jakinarazten ez direnean, hori egiteko ezintasuna egiaztatu ezean.

Huts egin eta ondorengo berrogeita zortzi orduetan behar bezala eta egoki justifikatzen ez direnean, halabeharrezko kasuetan salbu.

2.– Agintedun lanpostuetan daudenen agintekeria hutsegite larri edo oso larritzat joko da, kasuan kasu.

3.– Iruzurra, leialtasun eza edo konfiantza-abusua izan dela iritziko da ondoko kasu hauetan: langileak Enpresarekin izan beharreko gardentasun eta lankidetzarako obligazioa -Enpresak ordaintzen duen langilea baita- haustea dakarren jokabideren bat burutzen denean; edo norbere interesa erakundearen interesaren nahiz interes profesionalaren aurretik jartzen denean; edota malezia, ezkutaketa, eta, funtzio nahiz ahalmen

d) En particular para los puestos de redacción y de especial responsabilidad se tomará en cuenta el deterioro de confianza que la comisión de la falta pueda llevar consigo. A estos efectos se presumirán muy graves, salvo que concurrieran circunstancias excepcionales eximentes, las conductas consistentes en cualquier forma de desviación de fondos, hurtos, irregularidades contables, simulación de gastos o similares, con independencia de los importes a que se refieran.

e) Igualmente, en atención a la particular actividad de la Empresa, se considerarán en general faltas muy graves todas aquellas conductas que pongan de manifiesto cualquier tipo de colaboración o convivencia en perjuicio de las Empresas responsables de los periódicos diarios que compiten con «El Mundo», en perjuicio de este, en cualquiera de las localidades en las que éste se distribuye.

f) Las que limiten o vulneren el ejercicio de los derechos constitucionales.

Artículo 71.– Reiteración.

A los efectos previstos en los artículos anteriores, se considerará que existe reiteración de falta leve o grave cuando, habiendo incurrido en conductas calificables como tales, la Empresa las haya sancionado o conmutada la sanción, se las haya imputado al empleado advirtiéndole por escrito que la repetición de la misma conducta se consideraría reiteración a estos efectos.

En tales casos de imputación sin sanción, podrá el empleado impugnar la decisión Empresarial si así lo permitiesen las disposiciones legales de aplicación, en los mismos términos que si se hubiese impuesto la correspondiente sanción.

No podrá apreciarse reiteración en el caso de que entre una comisión y otra medie un plazo superior a un año.

Artículo 72.– Consideraciones particulares sobre algunos tipos de faltas.

1.– En materia de faltas de asistencia y puntualidad éstas se considerarán injustificadas cuando:

No sean notificadas con anterioridad, salvo que se demuestre la imposibilidad de haberlo hecho.

No se aporte justificación suficiente y razonable dentro de las cuarenta y ocho horas siguientes, salvo casos de fuerza mayor.

2.– El abuso de autoridad cometido por quienes desempeñen puestos de mando será considerado falta grave, o muy grave, según los casos.

3.– Se considerarán manifestaciones de mala fe, fraude, deslealtad o abuso de confianza cualquier tipo de conductas en las que exista una vulneración del deber de transparencia y colaboración con la Empresa debida a la condición de empleados de la misma por ella retribuidos, y se antepongan los propios intereses a los institucionales y profesionales o bien medie malicia, ocultamiento, desviación de facultades o funcio-

desbideratzeak tartean direla, Enpresak aurretiaz jakitun balego baimenduko ez lituzkeen jarrerak edota, oro har, onartezintzat jotzen direnak edo lehenago ere modu batean edo bestean gaitzetsiak izan direnak hartzen direnean.

73. artikulua.– Zehapenak.

Enpresaren Zuzendaritzak ondoko zehapen hauek jarri ahal izango ditu:

1.– Hutsegite arinengatik:

– Ahozko ohartarazpena.
– Idatzizko ohartarazpena.
– Egun bateko enplegu-soldataren etenaldia.

2.– Hutsegite larriengatik:

– Bi eta hamar egun bitarteko enplegu-soldataren etenaldia.

3.– Oso hutsegite larriengatik:

– Hamaika egun eta hiru hilabete bitarteko enplegu-soldataren etenaldia.
– Kaleratzea.

74. artikulua.– Enplegu-soldata eteteko zigorrari buruz.

Enplegua eta soldata kentzea dakarren zehapenaren kasuan, zehapena jakinarazten denean, soldata edo enplegu kentze hori noiz izango den zehaztu ahal izango da, edo, epaia ematen denean edota zehapena inpugnatzea ezinezkoa denean zehapenaren betebeharraz ohartarazi; edota aldi hori zehaztu gabe utzi ahal izango da zerbitzuko beharrak uzten duten arte. Azken kasu horretan, baldin eta enplegatuak inpugnatzen ez badu, urtebeteko epearen barruan zehapena benetan noiz beteko den zehaztu beharko da.

75. artikulua.– Jardunbidea.

Zehapenak jartzerakoan betetzekoak izango dira legezko xedapenek eskatzen dituzten prozedura arauak. Kontraesaneko espedientea izapidetzea aipatu xedapenek eskatzen duten kasuetarako baino ezingo da eskatu.

Aurrekoa baztertu gabe, Enpresaren Zuzendaritzak kontraesaneko espedientea irekitzea erabaki ahal izango du zehapen irmoa ezarri baino lehen, espedienteak berarekin ekar litzakeen informazioa edo argibideak beharrezko edo komenigarri irizten diren kasuetan. Aurrekoak ez dakar Enpresari arrazoi horiengatik espedientea irekitzeko eskatu ahal izatea.

Legez galdagarri izan gabe kontraesaneko espedientea bideratzen bada, irekitzeak hutsegiteen preskripzio-epeak etengo ditu, espediente hori irekitzen zaion langilearen idatzizko aurkakotasuna tarteko ez bada bederen. Hori gauzatuko balitz, ohiko izapidetze osoa bete beharko da hurrengo artikuluan xedatzen den gisan, edo izaera laburtuko beste bat hasi, zeinaren arabera, instrukziogilea edo idazkaria izendatu gabe,

nes, consumando comportamientos que, de conocerse con antelación, no serían normalmente autorizados por la Empresa, o se consideran en general inaceptables o consta que han sido reprochados de algún modo con anterioridad.

Artículo 73.– Sanciones.

La dirección de la Empresa podrá imponer las siguientes sanciones:

1.– Por faltas leves:

– Amonestación verbal.
– Amonestación por escrito.
– Suspensión de empleo y sueldo por un día.

2.– Por faltas graves:

– Suspensión de empleo y sueldo de dos a diez días.

3.– Por faltas muy graves:

– Suspensión de empleo y sueldo de once días a tres meses.
– Despido.

Artículo 74.– Sobre la sanción de suspensión de empleo y sueldo.

En el caso de imposición de una suspensión de empleo y sueldo, al notificar la misma podrá concretarse ya el período en que deberá tener lugar tal suspensión o advertirse de su cumplimiento para una vez que recaiga sentencia judicial o no sea posible la impugnación de la sanción, o dejarlo pendiente de concreción para el momento en que lo permitan las necesidades del servicio; en este segundo caso, y de no haber impugnación por parte del empleado, deberá fijarse el momento de cumplimiento efectivo de la sanción dentro del plazo de un año.

Artículo 75.– Procedimiento.

En la imposición de las sanciones deberán observarse las normas de procedimiento que exijan las disposiciones legales. Sólo será exigible la tramitación de expediente contradictorio para aquellos supuestos que contemplen tales disposiciones.

Sin perjuicio de lo anterior, la Dirección de la Empresa podrá decidir la incoación de expediente contradictorio con anterioridad a la imposición en firme de una sanción en aquellos casos en que considere necesaria o conveniente la información o aclaración que tal expediente pudiera llevar consigo. Lo anterior no implica que pueda exigírsele a la Empresa la incoación de expediente por tales motivos.

En caso de que se instruya expediente contradictorio sin ser legalmente exigible, su incoación interrumpirá los plazos de prescripción de las faltas, salvo que mediase oposición escrita del trabajador afectado a que se le instruya tal expediente. Si el mismo se llevase a efecto, podrá observar la totalidad de la tramitación ordinaria en los términos que se contemplan en el artículo siguiente o seguir otra de carácter abreviado conforme a

deskargu-plegua bideratzeko bi eguneko epea emango baita eta beharrezkotzat jotzen diren frogak burutuko baitira zazpi eguneko epean gehienez, Enpresak egoki iritziz gero.

76. artikulua.– Kontraesaneko espedientea.

Kontraesaneko espedientea irekitzeko ondoko izapideak jarraituko dira:

1.– Langileari ondokoak jakinaraztea: karguen plegua, eta instrukziogilea eta idazkariaren izenak; hauek Enpresako edozein sailetako pertsonak izan ahal izango dira edo nahiz eta kanpokoak izan, beren dedikazio profesionala dela eta, gai direnak.

Aipatu jakinarazpenean deskargu-plegua egiteko zein epe duen jakinaraziko zaio langileari; epe hori ez hiru egun baino gutxiagokoa izango ez eta bost egun baino gehiagokoa ere.

Langilea defendatu ahal izateko, Enpresaren karguen pleguan hutsegitetzat jotako jokamoldeak behar bezala deskribatu beharko dira, deskribapen hori sakonki edo zehazki egitea beharrezko ez bada ere, ezta, protagonista bera izateagatik edo antzeko beste arrazoi batengatik, eragindakoak ezagutzen dituen alderdien deskribapena ere. Enpresak, halaber, bete ez dela irizten den betebehar mota edo egindako huts mota generikoa zein den zehaztu beharko du, behin betiko kalifikazio juridikorik gabe bada ere. Bietako bat aipatzea aski izango da.

2.– Deskarguen plegua. Langileari emandako epean, edo lehenago berak hala nahi izanez gero, espedientea ireki zaion langileak idatziz adieraziko du bere eskubideari ongi datorkion heinean, eta horretarako egoki jotzen dituen frogak proposatu edo aurkeztu ahal izango ditu. Gertakariak argitzeko proportzionatuak eta eraginkorrak diren horiek burutuko dira, baina instrukziogileak desegokiak edo bereziki garestiak edo konplikatuak burutzea atzera bota ahal izango du.

Orduan, langileak espediente horri izapideak ez egiteko nahia adierazi ahal izango du, eta honela bere eskubideari uko egingo dio, edo besterik gabe ez duela inongo deskargurik burutu nahi adierazi ahal izango du, eta frogak seinalatu edo ematera mugatuko da.

3.– Froga egitea. Gehienez hamabost eguneko epean Enpresak beharrezko edo egoki jotzen dituen frogak edo langileak proposatu dituenak egingo dira, lehen adierazitako mugen barnean.

Lekukoen aitorpenik balego, espedienteko idazkariak aitorpenaren akta laburra jasoko du.

Idazkariaren idazkian, «data honetan jasota gera dadin…» atalean jasota geratuko da, halaber, espedienteari zein agiri erantsi zaion, beren jatorria eta beste edozein inguruabar adierazgarri zehaztuko direlarik.

la cual, sin nombramiento de instructor ni de secretario, se concederá el plazo de dos días para evacuar pliego de descargos y se practicarán, si la Empresa lo considerase oportuno, las pruebas que se estimen imprescindibles en el plazo máximo de siete días.

Artículo 76.– Expediente contradictorio.

La incoación de expediente contradictorio seguirá los siguientes trámites:

1.– Notificación del pliego de cargos al trabajador afectado, y de los nombres del instructor y secretario, que podrán ser personas de cualquiera de los departamentos de la Empresa o ajenas a la misma que, por su dedicación profesional, resulten idóneas.

En dicha notificación se le señalará al trabajador el plazo con que cuenta para efectuar el pliego de descargos, que no podrá ser ni inferior a tres días ni superior a cinco.

El pliego de cargos de la Empresa deberá describir las conductas que se consideran constitutivas de la falta de manera suficiente para que sea posible la defensa del trabajador, pero sin necesidad de un carácter exhaustivo o detallado, ni de la descripción de aquellos extremos que sean conocidos por el afectado en razón a la protagonización de los mismos o cualquier otro motivo semejante. Igualmente deberá señalar la Empresa, aun sin una calificación jurídica definitiva, el tipo de obligación que se considera incumplida o el tipo genérico de falta que se entiende cometida, siendo bastante cualquiera de las dos menciones.

2.– Pliego de descargos. En el plazo concedido al trabajador, o antes si así lo prefiriese éste, manifestará por escrito el expedientado cuanto convenga a su derecho, pudiendo también proponer o aportar las pruebas que estime oportunas al efecto. Se practicarán aquellas que resulten proporcionadas y eficaces para el esclarecimiento de los hechos, pudiendo el instructor desechar la práctica de las que resulten manifiestamente improcedentes o excesivamente costosas o aparatosas.

En ese momento podrá también el trabajador manifestar su deseo de que no se instruya tal expediente, renunciando así a su derecho, o simplemente que no desea efectuar descargo alguno, limitándose al señalamiento o aportación de prueba.

3.– Práctica de prueba. En el plazo máximo de quince días se practicarán aquellas pruebas que la Empresa considere necesarias o convenientes o que el trabajador haya propuesto, con los límites antes expresados.

En el caso de declaración de testigos, se levantará acta resumida de su declaración por el secretario del expediente.

Se hará constar igualmente mediante escrito del secretario y bajo la rúbrica «para hacer constar que con esta fecha…», la aportación de documentos al expediente, de los que se indicará su origen y cualquiera otra circunstancia significativa.

Espedientera batu ahal izango dira halaber, partikularrengandik, erakundeengandik edo herri-erakundeengandik jasotako agiriez gain, argazkiak, bideoak eta filmak, eta idazkariak beren egoera eta jatorria jasoko ditu.

Espedientea ireki zaion langileak hala eskatuz gero soilik hartu ahal izango dio aitorpena instrukziogileak, karguen eta deskarguen pleguari buruzko edozein alderdi argitzeko. Bidezko akta jasoko da, eta langileak adostasun froga gisa sinatu beharko du edo ez; azken kasu honetan, aktak ez dituela bere benetako aitorpenak jasotzen uste duela adierazi beharko du langileak aktaren beheko aldean.

4.– Instrukziogilearen proposamena. Aipatu epean egin beharreko froga egin eta gero, instrukziogileak Enpresaren Zuzendaritzari zehapen-proposamena emango dio, bertan laneko hutsegitea osatzen duten gertaerak azalduko dituelarik, baita egindako hutsegite mota eta honen larritasuna ere.

Proposamen hori ematearekin batera, kontrakotasun espedientea amaitutzat joko da, eta une horretan aurkeztu beharko da proposamenarekin. Orduan, idazkariak bertan sartuko du, hasierako agiri gisa, jasota dauden agiri guztiak eta burututako egintza guztien datak biltzen dituen akta.

5.– Zehapena ezartzea. Instrukziogilearen proposamena eta kontraesaneko espedientearen edukia ikusi eta, Enpresaren Zuzendaritzak idatziz jakinaraziko dio langileari bidezko iritzitako zehapena, eta ondorioetarako data, ustez egin den hutsegite mota eta honen larritasuna zein diren adieraziko dizkio.

Jakinarazpen honetan Enpresak instrukziogilearen proposamenaren edukiari erreferentzia egin ahal izango dio bere egiten badu, bertan ez dauden alderdiak bakarrik adieraziz.

77. artikulua.– Preskripzioa.

Hiru hutsegite moten preskripzio-epeak aplikatzekoak diren legezko xedapenetan jarritakoak izango dira.

Jarraian egiten diren hutsegiteen kasuan, preskripzio-epeak ez dira hasiko harik eta jarrera hori desagertzen den arte. Salbuespen izango da ondorengo paragrafoan xedatutakoa.

Hutsegiteren baten egileak hutsegitea ezkutatu, eta Enpresak horren berri izaten ez badu, preskripzio-epea ez da hasiko harik eta Enpresak horren berri izaten duen arte, bai egintzei dagokienez, bai hutsegitearen norainokoari eta larritasunari dagokienez. Horrela, hutsegitea ezkutatzeak hutsegitea luzatu ez ezik, preskribitzeko epea hastea eragotzi ere egiten du.

78. artikulua.– Bateragarritasuna.

Lan arloko hutsegiteen erantzukizuna eta dagozkien zehapenak ezartzea arlo zibil, penal edo administratibo-

Podrán incorporarse igualmente al expediente, además de los documentos que se hayan recabado de particulares, instituciones u organismos públicos, fotografías, vídeos y películas, de cuyo estado y procedencia dejará constancia asimismo el secretario.

Sólo a solicitud del trabajador expedientado podrá el instructor tomarle declaración para aclarar cualquier extremo relativo a los pliegos de cargos y de descargos, levantando el acta oportuna, que deberá firmar en prueba de conformidad o dejar de hacerlo manifestando al pie de la misma los extremos en que considera que el acta no responde a sus verdaderas declaraciones.

4.– Propuesta del instructor. Practicadas las pruebas correspondientes dentro del plazo señalado, el instructor procederá a remitir a la Dirección de la Empresa propuesta de sanción en la que explicará los hechos que considera constitutivos de la correspondiente falta laboral, así como el tipo de falta cometida y su gravedad.

Con la remisión de dicha propuesta se considerará concluso el expediente contradictorio, que deberá elevarse en ese momento con la propuesta. En este momento el secretario incluirá en el mismo, como documento inicial, acta en la que consten la totalidad de documentos que contiene y las fechas de las diferentes actuaciones practicadas.

5.– Imposición de la sanción. A la vista de la propuesta del instructor y del contenido del expediente contradictorio, la Dirección de la Empresa procederá a la notificación escrita al empleado de la sanción que estime procedente, haciéndole constar la fecha de efectos, el tipo de falta que se considera cometida y su gravedad.

En esta notificación podrá la Empresa remitirse al contenido de la propuesta del instructor si la hace suya, con indicación exclusivamente de aquellos extremos que no se contuvieran en la misma.

Artículo 77.– Prescripción.

Los plazos de prescripción de los diferentes tipos de faltas serán los contemplados en las disposiciones legales de aplicación.

En el caso de las faltas continuadas, los plazos de prescripción no comenzarán a computarse hasta que no cese la comisión de la conducta, y salvo lo dispuesto en el párrafo siguiente.

Cuando, por mediar ocultación de la falta por su autor, ésta no hubiese llegado a conocimiento de la Empresa, el plazo de prescripción no se iniciará hasta que se produjese tal conocimiento tanto respecto a los hechos como respecto a su alcance y gravedad, entendiéndose que la ocultación no sólo prolonga la comisión de la falta sino que impide el inicio de los cómputos prescriptivos.

Artículo 78.– Compatibilidad.

La responsabilidad por faltas laborales, y la imposición de las correspondientes sanciones, será compatible

an dagokionarekin bateragarria izango da, eta horietako bat eskatzeak ez du esan nahiko gainerakoak baztertzen dituenik eta horiek eskatzeari uko egiten zaionik.

Hainbat erantzukizun batzen diren kasuan ere, ez da beharrezkoa izango lanekoak ez diren prozedurak amaitu arte itxoitea lanekoak diren prozedurak hasteko edota erabiltzeko.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Enpresak eta langileen legezko ordezkariek erabaki dute, hitzarmen kolektiboa argitaratu eta sei hileko epean, laneko jazarpena prebenitzeko protokoloa prestatuko dutela, indarrean de legerian aurreikusten den eran. Protokolo hori prestatu bitartean VII. kapitulua (28., 29., 30. eta 31. artikuluak) indarrean izango da aldi baterako.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Erretiro-sistema graduala eta malgua:

Gai honetan indarrean dagoen legezko ordenamenduan xedatutakoa izango da kontuan, eta hala behar bada eta alderdiek beharrezko irizten badiote, aplikazio-arauek ahalbidetutako akordioak sinatu ahal izango dira, Enpresa eta eragindakoen artean eskumen hau indibidualki erabiltzeari eragin gabe, mugen barnean eta xedapenek ondorio horretarako aurreikusten dituzten kasuetan.

I. ERANSKINA

LANBIDE-TALDEEN DESKRIBAPENA

1.– Erredakzioa.

– Erredaktore-burua: egunkariaren orientazio eta komunikazio oinarrizko lerroez, egunkariaren ale guztien azken konfigurazioaz eta sailen koordinazioaz arduratzen den kazetaria da, eta egunkariko zuzendariaren aginduetara egongo da.

– Saileko burua: egunkariaren orientazioko eta komunikazioko oinarrizko lerroei dagokienez, haren saileko zati baten ardura hartzen duen kazetaria da. Erredaktore-buruaren menpe jardungo du.

– Erredaktorea: bere sailaren barruan, informazio literarioa zein grafikoa egiten duen kazetaria da, betiere, saileko buruaren aginduei eta kazetaritzako praktika eta kodeei jarraiki.

– Erredakzioko laguntzailea: erredaktore bati edo erredaktore-talde bati bere informazio-zereginetan laguntzen diona da, material egokiak bilduz, edo beste edozein zeregin lagungarri burutuz. Erredaktoreen

con la que corresponda en el orden civil, penal o administrativo, no pudiéndose entender en ningún caso que la exigencia de alguna de ellas excluye las restantes ni implica renuncia a su exigibilidad.

Tampoco será necesario, en caso de concurrencia de distintos tipos de responsabilidades, esperar la conclusión de los correspondientes procedimientos ajenos a lo laboral para incoar o sancionar los pertenecientes a este último tipo.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

La empresa y los representantes legales de los trabajadores acuerdan, que en el plazo de seis meses desde la publicación del convenio colectivo elaborarán un protocolo de prevención del acoso en el trabajo en los términos previstos en la legislación vigente. Mientras se elabore el presente protocolo quedaran vigente transitoriamente el capítulo VII (artículos 28, 29, 30 y 31).

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Sistema de Jubilación Gradual y Flexible:

En esta materia se estará a lo dispuesto en el ordenamiento legal vigente, pudiendo las partes si así procediese y lo estimasen necesario, suscribir los acuerdos permitidos por las normas de aplicación, sin perjuicio del ejercicio individual de esta facultad entre la Empresa y los afectados, dentro de los límites y en los casos que las disposiciones contemplan a tal efecto.

ANEXO 1

DESCRIPCIÓN DE GRUPOS PROFESIONALES

1.– Redacción.

– Redactor-jefe: es el periodista que, a las órdenes del Director del periódico, asume la responsabilidad de la coordinación y configuración de su sección, y en lo que son sus líneas básicas de orientación y comunicación.

– Jefe de sección: es el periodista que asume la responsabilidad, por debajo del Redactor-jefe, de una determinada parcela de su sección y en lo que son sus líneas básicas de orientación y comunicación.

– Redactor: es el periodista que asume los cometidos propios de información literaria o gráfica correspondiente a la sección a la que esté asignado, siguiendo las indicaciones del jefe de la misma y conforme a las prácticas y códigos de la profesión periodística.

– Ayudante de redacción: es quien colabora con uno o varios redactores para la preparación de los cometidos informativos propios de éstos, recopilando el material adecuado, o a través de cualquier otra función auxiliar,

edo dagokion saileko buruaren aginduetara jardungo du.

2.– Zerbitzuak.

– Saileko zuzendaria: administrazio-zereginek, informatikakoek eta Enpresarenak diren beste zeregin orokor batzuek osatzen duten unitate funtzionala zuzentzeko eta koordinatzeko ardura duen langilea da, horretarako nahikoa eskumen eta lan-esperientzia izango du. Bere kargu hainbat arlo izango ditu eta horiek funtziona dezaten irizpideak zehaztuko ditu; nagusiei horien berri emango die, eta horiek kontrolatu eta ikuskatuko dute haren lana.

– Arloko burua: nahikoa eskumen eta lan-esperientzia izanik, sailaren menpe dagoen eta jardueretako zenbait bere baitan dituen unitate funtzional baten koordinazioaz eta zuzendaritzaz arduratuko da. Jarduerok Enpresaren administraziokoak, informatikakoak eta orokorrak diren zereginei dagozkie, eta unitate horretarako izendatutako langileak izango ditu bere gain. Bakoitzari dagozkien funtzionamendu-irizpideak emango dizkie eta euren lana kontrolatu eta gainbegiratuko du. Guzti honen berri emango dio saileko buruari.

– Administrazioko langileak: administraziokoak, informatikakoak eta Enpresarenak diren beste zeregin orokor batzuk izanik, lanbide talde honetako sailak osatzen dituzten arloetako bakoitza biltzen du.

– Komertziala: merkataritza zereginak izanik, Publizitate saila osatzen duten arloak biltzen ditu.

– Teknikaria: zeregin teknikoak izanik, informatika eta tailerrak sailak osatzen dituzten arloak biltzen ditu.

en los términos que se le encomienden por los Redactores o el Jefe de sección correspondiente.

2.– Servicios.

– Director de departamento: es quien, con competencia y experiencia profesional suficiente, asume la responsabilidad de la dirección y coordinación de una unidad funcional propia de los cometidos administrativos, informáticos o generales de la empresa, teniendo a su cargo las diversas áreas e impartiendo los correspondientes criterios de funcionamiento a sus jefes, cuya labor controlará y supervisará.

– Jefe de área: es quien, con competencia y experiencia profesional suficiente, asume la responsabilidad de la dirección y coordinación de una unidad funcional subordinada al departamento y comprensiva de algunas de las actividades en que el mismo se diversifique, respecto a los cometidos administrativos, informáticos o generales de la empresa, teniendo a su cargo los emplea- dos asignados a tal unidad, a los que impartirá los correspondientes criterios de funcionamiento, controlando y supervisando su labor. De todo ello rendirá cuentas ante el Director del departamento.

– Personal administrativo: es aquel que, adscrito a los cometidos administrativos, informáticos o generales de la empresa, integra cada una de las áreas que constituyen los departamentos de este grupo profesional.

– Comercial: es aquel que, adscrito a los cometidos comerciales, integra cada una de las áreas que constituyen el Departamento de Publicidad.

– Técnico: es aquel que adscrito, a los cometidos técnicos, integra cada una de las áreas que constituyen los departamentos de informática y talleres.

II. ERANSKINA

TALDE PROFESIONAL BAKOITZEKO ORDAINSARIAK
2008. URTERAKO SOLDATA MAILAK (2007ko balioen gaineko % 2ko igoera)

Arloa	Kategoria	Diru-sarrera maila	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila
Erredakzioa						
	Erredaktore-burua	48.693,29	52.438,79	56.090,63		
	Saileko burua	31.161,52	32.703,86	36.442,15	41.201,47	44.946,81
	Erredaktorea	21.609,32	27.010,95	28.467,17	29.965,30	31.161,52
	Erredakzioko laguntzailea (idazk.., telef.)	13.484,52	16.206,37	17.603,81		
Zerbitzuak						
	Saileko burua	48.693,29	52.438,79	56.090,63		
	Arloko burua	27.010,95	30.251,83	33.710,64	37.393,75	
	Administraria	16.206,37	19.439,89	22.689,12	24.848,89	25.552,44
	Komertziala	21.609,32	27.010,95	29.965,30	33.710,64	
	Teknikaria	17.603,81	21.608,01	24.305,96	27.010,95	

ANEXO 2

RETRIBUCIONES EN CADA GRUPO PROFESIONAL
NIVELES SALARIALES PARA EL AÑO 2008 (Incremento del 2% sobre los valores 2007)

Área	*Categoría*	*Nivel Ingreso*	*Nivel 1*	*Nivel 2*	*Nivel 3*	*Nivel 4*
Redacción						
	Redactor Jefe	*48.693,29*	*52.438,79*	*56.090,63*		
	Jefe Sección	*31.161,52*	*32.703,86*	*36.442,15*	*41.201,47*	*44.946,81*
	Redactor	*21.609,32*	*27.010,95*	*28.467,17*	*29.965,30*	*31.161,52*
	Ayudante redacción (secre., telef.)	*13.484,52*	*16.206,37*	*17.603,81*		
Servicios						
	Director departamento	*48.693,29*	*52.438,79*	*56.090,63*		
	Jefe Área	*27.010,95*	*30.251,83*	*33.710,64*	*37.393,75*	
	Administrativo	*16.206,37*	*19.439,89*	*22.689,12*	*24.848,89*	*25.552,44*
	Comercial	*21.609,32*	*27.010,95*	*29.965,30*	*33.710,64*	
	Técnico	*17.603,81*	*21.608,01*	*24.305,96*	*27.010,95*	

III. ERANSKINA

INFORMATIKAKO BALIABIDEEI BURUZKO PROTOKOLOA

1.– Irizpide orokorrak eta arau erregulatzaileak.

1.1.– Editorial del Pueblo Vasco SAk langileei emandako material informatiko guztia, eta ordenagailua bereziki, lan-tresnak dira, Enpresaren jabetzakoa eta Zuzendaritzak emana lan-betebeharrak ahalik eta era eraginkorrenean burutzeko. Behar den eginbidearekin erabiliko da, erabilera ezegokiak eragin ditzakeen kalteak saihesteko.

1.2.– Langileek behar den eginbidearekin erabiliko dute euren esku ezarritako materiala, erabilera ezegokiak eragin ditzakeen kalteak saihesteko.

Konpainiaren instalazioetatik kanpo ordenagailu eramangarria erabiltzen dutenen kasuetan eginbide hau muturreraino eraman beharko da.

Ustezko lapurreta, ebasketa edo hirugarren batek eragindako kalteak gertatzean, langileak behar den salaketa ezarri beharko du.

1.3.– Material informatikoaren titulartasuna Enpresaren jabetzakoa denez, eta material hori lan-tresna gisa hartzen denez, material informatikoa Enpresak izendatutakoetatik beste toki batera lekualdatzeko berariazko baimena behar izango da, eta, bereziki, lantokitik kanpo mugitu behar denean.

1.4.– Langile bakoitzak, Enpresak bete beharreko zereginen arabera pertsonalki eman dizkion material informatikoak erabili beharko ditu. Ez da onartuko horretarako izendatutako langilea ez den beste batek ordenagailua edo baliabide informatikoak erabiltzea, Editorial del Pueblo Vasco SAri erabiltzeko baimena eskatuz idatzizko jakinarazpena egin eta honek baimena eman ezean. Aipatu eskaera idatziz egin beharko zaio eskabidea bideratzen duen langilearen saileko arduradunari, eskabidegai den material informatikoa erabili baino 24 ordu lehenago gutxienez. Salbuespenez, izapide hau ahoz egitea onartuko da, betiere noizbehinkakoa izan eta arrazoiak ematen direnean, eta eskabidea egiten duen saileko arduraduna jakinaren gainean egonda.

1.5.– Ordenagailuaren funtzionamendua abiarazteko edo posta elektronikora, datu-basera, programa informatikoetara, intranetera eta internetera sartzeko gakoa behar bada, gako hori langilearena izango da, pertsonala, eta berak eta Editorial del Pueblo Vasco SAk izendaturikoek bakarrik jakingo dute zein den.

Langilea izango da bere ekipoen segurtasunaren eta aipatu gako pertsonala beste langileei ez zabaltzearen ar-

ANEXO 3

PROTOCOLO SOBRE MEDIOS INFORMÁTICOS

1.– Criterios generales y normas reguladoras.

1.1.– Todo el material informático, y en particular el ordenador, proporcionado a sus empleados por «Editorial del Pueblo Vasco, S.A.», constituye una herramienta de trabajo, propiedad de la Empresa y facilitada por la Dirección con el fin de desempeñar más eficientemente sus funciones laborales. Deberá ser utilizado con la diligencia debida con el fin de evitar perjuicios derivados del mal uso de los mismos.

1.2.– El personal deberá utilizar el material puesto a su disposición con la diligencia debida, con el fin de evitar perjuicios derivados del mal uso de los mismos.

Esta diligencia deberá extremarse en los casos en que los usuarios utilicen un ordenador portátil fuera de las instalaciones de la Compañía.

En el supuesto de robo, hurto o daños infligidos por un tercero, el trabajador deberá interponer la correspondiente denuncia.

1.3.– Debido a que la titularidad de la propiedad del material informático corresponde a la Empresa, y a la consideración del mismo como herramienta de trabajo, será necesaria autorización expresa para trasladar el material informático a dependencias distintas de las designadas por la Empresa, y, en especial, fuera del centro de trabajo.

1.4.– Cada trabajador debe utilizar los materiales informáticos que la Empresa le haya adjudicado personalmente en atención a las funciones desempeñadas. No se permitirá el uso del ordenador o medios informáticos por trabajador distinto al que haya sido designado para dicho uso, salvo notificación escrita a la Empresa solicitando el correspondiente permiso de utilización con la consiguiente autorización de «Editorial del PuebloVasco, S.A.». La solicitud del mencionado permiso habrá de realizarse por escrito dirigido al responsable del Departamento del empleado que cursa la solicitud, con una antelación mínima de 24 horas a la utilización del uso del material informático objeto de la petición. Excepcionalmente, se permitirá que este trámite se realice verbalmente siempre que se trate de ocasiones esporádicas suficientemente motivadas y con conocimiento del responsable del Departamento del trabajador solicitante.

1.5.– En caso de que el acceso para iniciar el funcionamiento del ordenador o acceder al correo electrónico, bases de datos, programas informáticos, Intranet e Internet requiera una clave, ésta será personal del empleado y conocida únicamente por él y las personas designadas por «Editorial del Pueblo Vasco, S.A.».

El empleado será responsable de la seguridad de sus equipos y de no difundir a otros empleados dicha clave

duradun, Enpresak eman dizkion material eta baliabide informatikoak behar ez bezala erabiltzearen ondorioz sor litekeen edozein gertakari edo arazo saihesteko. Ezin izango da beste langile baten gakoa erabili langile horren beraren edo Enpresaren baimenik gabe.

Ohar hauek ez betetzeak eta sarbide-gakoen erabileran kontratuzko fede ona urratzeak protokolo honen 8. puntuan aurreikusitako zehapenetarako bide emango dute.

1.6.– Editorial del Pueblo Vasco SAk, bere zuzendaritza-botereak erabiliz, langileei emandako baliabide informatikoen erabilera zuzena egiaztatzera bideratutako kontrol-neurri egokiak hartu ahal izango ditu, protokolo honen 6. puntuan arauturikoak.

1.7.– Enpresak emandako ordenagailuaren eta baliabide informatikoen hornidura, erabilera eta erabilera-kontrola, erabileraren ondorioak eta erantzukizunak, eta honi lotutako gainerako gaiak, protokolo honetan xedatutakoarekin eraenduko dira, eta subsidiarioki lan-ordenamendu, ordenamendu zibil eta, bereziki, informatikoarekin.

2.– Posta elektronikoa.

2.1.– Irizpide orokorrak.

2.1.1.– Enpresaren Zuzendaritzak posta elektronikoko helbide indibidual bana eman die langileei, eta ohartarazi euren lanpostuko betebeharrak helbide hori zentzuz erabiltzea eskatzen duela. Posta elektronikoaren antolaketa eta jarraitu beharreko sistema Enpresaren eskumena denez, baldintzak erabakitzeko askatasun osoarekin, Editorial del Pueblo Vasco SAk momentu horretan dagoen lanpostu bakoitzaren beharren arabera, tresna hori mantendu, aldatu edo kentzeko aukera du.

